

ALDIZKARIAK

Jaunaren deia 27-28

Egunak dirala eskuratu nuen JAUNAREN DEIA aldizkariaren 27-28 zenbakia.

Azkenaldiko beste guziet bezala, honek ere txundituta utzi nau. Zergatik? Kategoria handia du. Ez dakit nik (edo zoritxarrez ondoegi dakit) nola ez dan zabalduagoa. Eta ezagutuagoa.

Zenbaki hau, ia osorik, Mezari eskeinia da. Lan batzuk apaizei eta elizkizunen atontzaileiri laguntzeko egokiak dira. Beharrezkoak gure Euskal Herrian euskerazko «materiala» falta zaigulako gauza guztietan. Eta erlijio gaietan ere bai. Eskertzekoa da horregatik lan hau.

Ba dira zenbaki hontan beste lan batzuk saiakera gisa emandakoak. Lehengoari lotuta bai (kristau dialektika aberats hortan), baina gero bat gauzatzen eta kristaudi berri eta berritu bati begira eginak, dudarik ez. Oso ategin izan zaizkit idazlan hauek. Artikulu bakoitzak merezi luke azterketa sakon bat. Bestetik gabe, artikulu hauek irakurbidean jartzen naute, ez euskeraz daudelako bakarrik. Gauzak garbi: ez horregatik batez ere, gaiak diralako hain interesgarriak baizik.

Zenbaki bikaina eskuetan dudana hauxe! Gaia eta hizkuntza ondo josten direanean, hara zer gauza ederra sortzen dan.

Euskerari buruz zer esango? Euskerari erreza, atsegina. Ona, hitz batean. Batasun-bidetik doana gehienbat, gainera. Arantzazun Euskaltzaindiak bildutako erabakiei jaramon leiala eginik.

Apaipez zer esanik ez, baina kristau landu guziet ere jaso behar luke beste aldizkari hau beren etxeetan.

JAUNAREN DEIA eskuratu nahi duenak, eska beza zuzenbide hontera: MARKOX AMUNDARAIN BENEDITARRAK LAZKAO.

JOAN MARI TORREALDAY

SALGAI DAGO TXILLARDEGI-REN «ELSA SCHEELEN»

José Luis Alvarez Enparanza, «Txillardegi», lehenengo mailako idazlea dugu, ta orain, bere «Elsa Scheelen» nobelarekin. Lehenengo saria irabazi dau.

Orain ordu bete, nobela hau irakurten amaitu dot. Gogorra, garratza, behin baiño gehiagotan nazka-garria. Baina irakurri behar doguna.

«Bihotzak opa duena sinisten dogu maizegi». (Elsa Scheelen, 53-garren horrialdea). Eta egia da. Nik ez dakit zergatik, baina gutariko bakoitza bizi da «bere munduan», eta uste dogu mundua, mundu guztia, holakoa dala. «El Caso» ta beste aldizkari sensazionalistak jakinarazten daskuezen gertaerak, beste mundu batekoak dirala uste dogu. Gp, astegunetan, lanera goaz; pero, edo familian emazte ta seme-alabekin, eta adiskideekin arandegi ta barrera. Igandeetan, goizean mezarata ta gero edo ondartzta edo mendira. Hau da bizitza normala. Millaka automobilak jaiegunetan ondartzarako bideetan, guztiak zorian itxuraz. Itxuraz, baina bai egitan?... «Gure aspertzea izkutatu: horra hor mundu hontan lortu nahi dan bakarra» (E. S., 118).

Baina munduan ez da bakarrik holako «jende normala» bizi. Kartzelan egor ganarak, beste mundu hori aurrez aurre ikusi dogu. Zelako jende klasea preso komunen artean. Zelako nazka sarri askotan, eurekin hitz egitean!

Nork baltzatu dau jende hori holako bizitzara? Duda barik, jende asko sufritzen dago. Itxuak, mutuak. Bakardadean bizi diran zaharrak. Luzarorako geixo, espexterata eta erbesterauek daukean familia. Lapurrak. Bizioak aldatz behera jaurtiak. Kiebran edo erdi kiebran dagozan komertzianta ta industrialak. Seme anormal bat dauken gurasoak. Gizonak abandonaturitako andra handurak. Diruaren faltaz bizi diran familia.

Nork daki zer dan diruaz justujustuan ibiltzea? Nork daki familieren barruan trajedia bat eukitea zer dan? Nork daki negar egitea zer dan? Eta «negarrez ari danak egin din beti» (E. S., 131).

Arandegiak bete, ondartzak gainezka, automobilak millaka. «Zerk biziarazten zaitu zu?». (E. S., 54). Eta gure ondano, beste batzuk negar dagie. Eta gure ajolagabekeriak, gure egoismoak, euren tristura handiagoa egiten dau.

Baina horren aparte, ba dago tristurarako beste iturri bat: deseingatur, zoezertan fedea galtzea.

Behin baiño gehiagotan pentsau dot ia komeni dan gure umeai Errege Magoetan sinistaraztea, gero, aurrerago, euren itxaropena hondatuko, amets goxo batzuk guzur zilara esateko. «Egiaren argitan, eluztereko trudia desegiten hasi, amezko eguzkitan gelsalzen dan bezela» (E. S., 86). Eta hemen intelektual askoren trajedia, idealetan fedea, programetan sinistea, itxaropena, galduaz.

Txillardegi-ren nobelan, personajek bi dira nausi: Elsa Scheelen nekea ta Pierre Meunier abadea, apaiza.

Elsa, Lieja-ren ingurutako mina baten lan egiten eban aita baten alaba. Txikitandik, diruaren faltaz bizi izan ziran. Edertasunaz ornitua egoan eta gazte aberats batek beraganatu eban. Itxaropentsu joan zan berarekin: famili bat lortuko eban, seme-alabak eukiko ebezan, diru ugari.

Pierre Meunier apaiztegia, serinariora joan zan, fedez beterik. Gero, abade-langilea, minetan, eta marxista egin zan. Baina Eleizan eta marxismoan galdu eban fedea. Ez dau gero ezertan sinisten. «Garritu behar zutenak, menperaturik eta mesprextaturik hiltzen dituk Kondairan» (E. S., 145).

Eta Pierre-k, aurrerago esan dogun legez, bakartadea nabaitzen dau, ta bere tristura handiagoa egiten da. «Nik neuk ere, pare egin desateken guziak eta txirotasuna ezagutu ez duten guztiak, bihotzaren erditik madarikatzen dizkiat». (E. S., 145).

Biak egin ziran zorianbakoak, bakoitza bere aldetik. Baina gizonak zoezer maite behar dau, itxaropen bat lortu behar. Eta bien bideak puntu baten batu ziran.

Alkar ezagutu ziran Elsa ta Pierre, eta maitasun ezina batek jo ebezan. «Espero ez genuena gertatzen zaigu, eta espero genuena ez zaigu gertatzen. Hauze da legea». (E. S., 174).

Trama garratz bat, Txillardegi-k bere maixutasunarekin aroanda, baiña ezin dogu ezer maite, lehenengo ezagutu barik; ezin dogu ezer soluzionatu lehenago jakin barik. Zelan maiteko dogu lagun urkoa, zelan bere problemak soluzionako, ez badoguz ezagutzen? Ez da zuzena «ni ondo ta besteak or konpon» esatea. Eta gehiagotan hori egiten dogu. Uste dogu, jaiegunetan mezarata joatearekin dana eginda dagoala. Errosarioa erreazu edo Caritas-eri hamar peseta emotearekin, gure eginbeharrak bete doguzala.

Zorionaren billa gabiltza, bakoitza bere aldetik. Ez doguz problemarik nahi, ta lagun urkoarengan arduratueak, problemak, burukomifiaak dakarskue.

Egia, beti da garratza. Haugaitik da garratza «Elsa Scheelen». «Kondairan ez ditek sainduek irabazten; eta zuek, sainduek, garratzeko esperantza duzute». (E. S., 147).

Hitz gogorrek gizarte konformista hontan.

Lehenengo mailako liburua hau, euskal literaturan sortu diran artetik hoberenetarikoa. Euskerba tuan datzia, zuzena dan legaz.

Eta izenpetu baino lehen, eskari bat, bai Txillardegi ta bai Kriseluru argitaldariai: jarraitu dagirila, batak idazten ta besteak argitaratzen. Holako liburuk behar doguz.

XABIER GEREÑO

Liburua: «Elsa Scheelen» Argitaldaria: Kriseluru Egilea: Txillardegi Saria: «Domingo Agirre-1968» Inprenta: Graficas Ellacuria — Buenos Aires, 13 — BILBAO-1 Eskariak: Begoña Arregi — Villa Eguzki Alde — ANDOAIN (GIPUZKOA). Gabriel Arenti — Alcazar Toledo, 46, 2.º — BILBAO-12.

«TXERTOA» ARGITALDARIA

Donosti-ko «Armerias» izeneko plazan Txertou Argitaldaria kanbara bat jarri-berria du liburu biltoki bezela. Izugarriko peza egin zan atzo, ori dala ta, kanbara ortan. Donosti ta ingurutako kultur-gizon asko eta asko izan ziran peza ortan.

Orixe-ren «Euskaldunak» liburu ederraren bigarren argitaldaztea egitera dihoaz Añamendi-tarrak. Edizio ontaroko Antonio Valverde eztilariak amabost litografi egin ditu. Ta an ziran «Txertoa» Argitaldariaen kanbara zabalteze egunean litografi quek. Valverdek biotz-barnean daramakin arte bikainarekin eginak.

Bestaldekik, Antonio Valverde semeak, abots ederrarekin doñu polit batzuk abestu zitun, guzien gustagarri.

An ziran Oteiza, ta Zumeta, Arteche ta Pelay Orozco, Xabier Lete ta Laboa... ainbat eta ainbat euskal kultura-zaleak.

Bodegón Alejandro

Alejandro-ren Bodega dago Donosti-ko txoko baten, bein ezagutzen dutenak zintzo dakite aruntz joaten. Nai dan aukera ba-dezu beti jaten bezela edaten, oberik ezin arki ditek merke ta ondo ematen.

Ferrnín Calbetón, 4 DONOSTIA

José Lizaso Bar Landeta

Zer nai, artetik erruz ba-dezu edanetan dan janetan, ostatu onen sone zabaldu zaigu alderdi danetan. Zure zal beti zabalik dago; ez da trabarik atetan, gorputza premliz deozun guzian sartu zaitze Landeta'n.

AZPEITI, LANDETA. Urrutziklifa: 81-13-11

MUEBLES URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea ERREDIZAK - EDERGALLUAK EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK POSTAS. 46 GAZTEIZ (Vitoria)

ERLOJU TA BITXITEGIA Eduardo Chopetia

Getaria, 10 - Urrut. 17751 Etxekoa 22700 — DONOSTIA

AROZENA

(UR Taldekoa)

erriari eman bear, ama, biotz-biotza.

Erakutsi ta irakatsi. Au egiten digu Arozena margolariak Donostiko Ayuntamientopean.

Ikusi. Ikasi. Utzi. Maltatu, landu, lagundu. Utzi, ta joan.

Oroimena; beste batzuekin artueman. Ikasitakoa irakatsi. Ikasitakoa, zer degu? Maitatutako zerbait, noski. Ortze daukagu. Ortze utzi degu. Gure arnasa ere erantsi diogu, ustez. Ezin erabat iges egin.


Ikasteko ere artuemanak izan bear ditugu. Batez ere ikasi nai genduanakin.

Ikasi degu zerbait. Nolabait, gurea degu. Ta gu ere bereak nolabait.

Arozenak, paisajeak edo margotu nai zituan gauzak, personak, bereak egin ditu nolabait.

Bañan berak ere alako bere arnas bat eman die.

Artu-emanak izan dituzte alkar.



OTALORA